PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA ADJUDICACIÓN, MEDIANTE PROCEDIMIENTO ABIERTO, DE UN CONTRATO DE:

"SERVICIO DE AUDITORÍA DE CUENTAS ANUALES DE BEAZ, S.A.U.".

Nº EXPTE.: 5/2021

ÍNDICE

1.- OBJETO DEL CONTRATO....3
2.- PRESUPUESTO....3
3.- ESPECIFICACIONES TÉCNICAS....3
4.- CONDICIONES PARTICULARES....7
5.- DISPOSICIÓN FINAL....10

1. OBJETO DEL CONTRATO

Es objeto del presente contrato la elaboración de los informes de auditoría de la entidad Beaz S.A.U., con domicilio social en Sabino Arana 8, Bilbao, correspondientes a los ejercicios 2021,2022 y 2023.

2. PRESUPUESTO

Presupuesto máximo del contrato será de 10.000.- € para cada año más IVA del 21%: lo que da un total de (12.100.- €) al año. El importe máximo para los tres años de contrato asciende a 30.000 € (36.300€ IVA incluido) con posibilidad de una prórroga adicional de 2 años lo cual supondría un importe máximo de 50.000.- €. (60.500€ IVA incluido).

3. ESPECIFICACIONES TÉCNICAS

3.1. Descripción general de la prestación

Comprenderá la emisión de los siguientes informes:

a. De auditoría de cuentas anuales emitido por una persona auditora independiente.

b. De sugerencias y recomendaciones referido al control interno que incluye el sistema de información dentro del entorno de la auditoria de cuentas anuales.

c. De cumplimiento de la legalidad en materia presupuestaria y de contratación, de conformidad con la Ley de Contratos del Sector Público, y en materia de contratación y retribución del personal.

d. De conciliación de saldos de la entidad auditada respecto de Diputación Foral de Bizkaia y del resto de entidades del sector público empresarial. Dicha conciliación deberá estar confirmada por escrito entre las diferentes entidades; en el supuesto de existencia de diferencias se deberá explicar las razones que justifiquen las mismas.

e. Otros requerimientos establecidos por Diputación Foral de Bizkaia en su caso.

El trabajo se realizará en diferentes fases temporales:

1. Trabajo preliminar: se desarrollará antes de la finalización del ejercicio auditado y servirá para planificar las tareas a ejecutar de la manera más eficiente, así como para identificar con antelación aquellas áreas que hayan de objeto de especial atención a juicio del auditor.

2. Trabajo final: se desarrollará durante los meses de enero o febrero del año siguiente al auditado, debiendo la persona o entidad auditora disponer de recursos suficientes para acordar con Beaz las fechas más adecuadas dentro del periodo mencionado.

3. Borrador de los informes: se elaborará durante la primera semana del mes de marzo del año siguiente al auditado, pudiendo en su caso ampliarse dicho plazo con autorización expresa de Beaz.

4. La fecha límite de entrega de los informes, salvo que se establezca lo contrario, será el 31 de marzo del año siguiente al auditado, salvo el informe de conciliación de saldos que deberá ser entregado el 28 de febrero.

3.2. Contenido de los informes

a. Informe de auditoría de cuentas anuales emitido por una persona auditora independiente.

Las cuentas anuales y el informe de gestión, en su caso, objeto de auditoría, responderán a la estructura y contenidos exigidos en la Orden Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia, por la que se regulan las operaciones de cierre cada uno de los ejercicios auditados, en relación con la contabilidad pública del Sector Público Foral del Territorio Histórico de Bizkaia.

Se comprobará que la Memoria recoja, además de las indicaciones específicamente previstas en la Orden Foral señalada en el párrafo anterior, de acuerdo al artículo 260 del Real Decreto Legislativo 1/2010, de 2 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Sociedades de Capital, y en lo que a la indicación séptima del citado artículo se refiere, relativa a la distribución del importe neto de la cifra de negocios correspondiente a las actividades de la entidad, se comprobará que se registra:

- Importe que corresponda a cada uno de los Departamentos Forales de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Importe que corresponda a cada una de las entidades del sector público foral (OO.AA. y entidades del sector público empresarial).
- Importe del resto de facturación.

Así mismo, en línea con el punto anterior se verificará que en la Memoria se describe una relación de los proveedores y acreedores cuyo volumen de facturación a la entidad haya superado en el ejercicio la cifra de 75.000 €, así como el importe de facturación de cada uno de ellos.

Adicionalmente, conforme se establece en el artículo 32.2.b) de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014, la persona auditora verificará, cuando la sociedad tenga reconocida la condición de medio propio personificado respecto de la Diputación Foral de Bizkaia, que en la Memoria se deja constancia del cumplimiento de que más del 80% de las actividades de la sociedad se llevan a cabo en el ejercicio de los cometidos que le han sido encargados por la Diputación Foral de Bizkaia y por las otras entidades del sector público foral que son controladas del mismo modo por ella.

b. Informe de sugerencias y recomendaciones

Descripción de las recomendaciones y sugerencias que, en opinión del auditor, deban realizarse como consecuencia del trabajo de control interno desarrollado.

c. Informe de cumplimiento de la legalidad presupuestaria, en materia de contratación y en materia de contratación y retribución del personal. Responderá:

- Al cumplimiento de la legalidad presupuestaria. En concreto a la ejecución presupuestaria de las dotaciones de explotación y de capital (art. 83 del Texto Refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria).

- Al cumplimiento de la legalidad en materia de contratación, de conformidad con la Ley de Contratos del Sector Público, considerando además lo establecido en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 3/2017, de 17 de enero, por el que se aprueba el reglamento ejecutivo para la incorporación de cláusulas sociales, medio ambientales y relativas a otras políticas en el procedimiento de contratación pública de la Diputación Foral de Bizkaia, así como la Circular 4/2017, de 23 de enero, "Guía práctica para la contratación administrativa: criterios e instrucciones para la incorporación de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas", difundida por la Dirección General de Servicios, Relaciones Municipales y Emergencias.

- Al cumplimiento de la legalidad en materia de contratación de contratación y retribución del personal:

- Límites establecidos a las retribuciones de las persones que ocupan cargos de gerencia y dirección general (N. F. 7/2015 que modifica la N.F. 4/1989 por la que se regulan las retribuciones…).
- Indemnizaciones: por jubilación anticipada, despido…
- Incrementos de retribuciones salariales aprobadas por la DFB.
- Cumplimiento de la plantilla presupuestaria aprobada para los ejercicios auditados.
- Procedimientos aplicados en la selección de personal que garanticen los principios de publicidad, igualdad, mérito y capacidad:
    - ✓ Existe un procedimiento razonable: relación de personas presentadas, justificación de motivos por los que se selecciona a unos y rechaza a otros, existan informes finales sobre las personas seleccionadas que evidencien mérito y capacidad…
    - ✓ La contratación del personal temporal se hace conforme a la plantilla presupuestaria y/o en base a una bolsa de trabajo creada a partir de un procedimiento de contratación previo.

d. Informe de conciliación de saldos

Detalle de las operaciones de todo tipo (compras, ventas, prestaciones de servicio, subvenciones, ampliaciones y reducciones de capital, cesiones, etc.) que se produzcan durante el ejercicio entre la entidad auditada y el resto entidades del sector público foral (Diputación Foral de Bizkaia, OO.AA. y entidades del sector público empresarial). El Servicio de Presupuestos del Departamento de Hacienda y Finanzas actuará de interlocutor para aportar la información que proceda.

3.3. Bilingüismo en los informes de auditoría de cuentas anuales

El informe de auditoría de cuentas anuales se presentará en euskera y castellano, con una firma y sin ningún tipo de cláusula restrictiva en cuanto al idioma (del tipo "en caso de discrepancia prevalece determinada versión" o "nuestro informe se limita únicamente a las cuentas anuales formuladas en determinado idioma"), siendo responsable de esta tarea la entidad auditora.

El informe se presentará en doble columna, con las siguientes especificaciones:

- Columna izquierda: en euskera
- Columna derecha: en castellano
- Alineación: izquierda
- Tipo de letra: lato light (encabezamiento: 14; título párrafo: 12, subtítulo: 11 y cuerpo: 10)
- Configuración de página: márgenes: 2, 2, 2, 2
- Espaciado (párrafo): anterior 12, posterior 0
- Columnas: ancho columnas 1 y 3: 8,31. Columna 2, (central) 0,63
- Espacio entre columnas 0,25
- Sin negritas, subrayados ni mayúsculas.
- Firma del Auditor: centrada respecto a las dos columnas

4. CONDICIONES PARTICULARES

4.1. Control de los trabajos

El responsable del proyecto o interlocutor de la empresa adjudicataria será el responsable de los trabajos en todos sus aspectos. Esta persona será la encargada de realizar las tareas de coordinar los recursos humanos de su empresa en el proyecto.

Beaz, nombrará un responsable del proyecto para los aspectos organizativos, funcionales y técnicos. Esta

persona actuará como interlocutor con la empresa adjudicataria, y deberá acudir a cuantas reuniones de seguimiento se propongan.

El desarrollo de los trabajos se realizará en las oficinas del adjudicatario.

4.2. Remisión de los informes

Se remitirán por correo electrónico y deberán estar firmados electrónicamente.

La fecha límite de envío de los informes definitivos será la del 31 de marzo del año siguiente a cada uno de los años auditados, salvo el de conciliación de saldos que deberá ser enviado antes del 28 de febrero del año siguiente a cada uno de los años auditados. Los informes serán enviados a Beaz y al Servicio de Auditoría del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia.

Previamente a la emisión de los informes definitivos la entidad auditora deberá remitir, por correo electrónico, un borrador de los mismos al Servicio de Auditoría de la Diputación Foral de Bizkaia.

4.3. Penalizaciones

Si por causas imputables al adjudicatario se hubiera incurrido en demora respecto al plazo total o a los plazos parciales de prestación del servicio o se haya incurrido en incumplimiento del plan de trabajo de manera que haga presumir racionalmente la imposibilidad de cumplimiento de plazo final o éste hubiera quedado incumplido, Beaz podrá optar indistintamente, por la resolución del contrato, por la imposición de las penalidades diarias en la proporción de 10 euros por cada 1.000 euros del precio del contrato pendiente de ejecutar, o por ambas.

4.4. Prórroga

El plazo inicial de TRES (3) años podrá prorrogarse, de mutuo acuerdo entre las partes, en dos ejercicios adicionales, hasta un total máximo de CINCO (5) años.

4.5. Forma de pago

La facturación de los trabajos se realizará de acuerdo a los siguientes criterios:

- 30 % a la finalización del trabajo preliminar.

- 70 % a la entrega de los informes definitivos.

El pago se realizará mediante transferencia bancaria, a la cuenta indicada en su oferta por el adjudicatario, tras la recepción de la correspondiente factura y dentro de los 30 días siguientes a la conformidad.

4.6. Datos de carácter personal

Si como consecuencia de la ejecución del trabajo contratado se utilizaran datos de carácter personal, la empresa auditora se obliga a cumplir con las exigencias establecidas en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

Asimismo, el adjudicatario deberá conocer y cumplir la Normativa de Protección de Datos de Carácter Personal de Beaz.

4.7. Subcontratación

Debido al nivel de confidencialidad, especialización y garantías del servicio a contratar, no se admite la subcontratación.

4.8. Cláusula de igualdad

Así mismo, la entidad adjudicataria a lo largo de la vigencia del contrato deberá hacer un uso no sexista del lenguaje en cualquier documento definitivo escrito o digital, así como, deberá desagregar los datos por sexo en cualquier estadística referida a personas que se genere, todo ello al amparo del artículo 2.3 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres en el que se señalan los principios generales que deberán respetarse.

5. CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN

➢ Criterio/s cuantificable/s automáticamente.

Dado el carácter del contrato, es necesario tener en cuenta tanto los criterios relacionados con la calidad como los estrictamente económicos, por lo que se considera necesario valorar aspectos tales como: la bolsa de horas extra para la resolución de las consultas contables y el tiempo de respuesta a peticiones por parte del personal de BEAZ S.A.U. Por lo anterior, los puntos a otorgar por criterios cuantificables mediante fórmulas ascienden a 70 sobre un total de 100 puntos, correspondiendo 60 puntos a la valoración económica y los restantes 10 a la valoración cualitativa mediante fórmula, y ello de acuerdo con el siguiente desglose:

- Valoración económica: hasta un máximo de 60 puntos. Las ofertas se clasificarán en orden descendente, otorgando la máxima puntuación a la oferta con menor precio y disminuyendo la puntuación al resto de las ofertas proporcionalmente respecto a la de menor precio, con arreglo a siguiente fórmula:

Puntuación Oferta Presentada (I) = (Precio Oferta más baja (Po) / Precio Oferta Solicitante (Pi)) x 60

- Tiempo estipulado para responder. Hasta un máximo de 5 puntos: se valorará con hasta cinco puntos el tiempo de respuesta para la resolución de la consultas o cuestiones planteadas a requerimiento de BEAZ S.A.U, que se puntuará de la siguiente manera:
    - Menos de 15 minutos: 5 puntos
    - Entre 15 minutos y 30 minutos: 2,50 puntos
    - Entre 15 minutos y 30 minutos: 1,25 puntos
    - Más de 1 hora: 0 puntos

- Bolsa de Horas de trabajo sin cargo: hasta un máximo de 5 puntos. Las empresas licitadoras que pongan a disposición de BEAZ una bolsa anual de horas de atención a consultas gratuitas, superior a 50 horas con un máximo de 100 horas, podrán obtener hasta un máximo de 5 puntos. Estas horas gratuitas serán en días laborables y en horario diurno. A la oferta que presente el mayor número de horas gratuitas se le otorgarán 5 puntos, y al resto en proporción inversa, una puntuación que resultará de la aplicación de la siguiente fórmula:

  Puntuación Oferta Presentada (I) = (Horas ofertadas por la licitadora (Hi) / Nº horas máximas ofertadas entre todas las ofertas presentadas (Ho)) x 5

➢ Criterio NO cuantificable automáticamente:

- Programa técnico: hasta un máximo de 30 puntos se atribuirán de acuerdo con el siguiente desglose:
    - Metodología y enfoque del servicio: memoria descriptiva de la materialización de los trabajos a realizar. Con este criterio se valorará la mayor descripción y adecuación de las tareas identificadas para la consecución de los fines perseguidos, así como la mayor coherencia del Plan de trabajo propuesto (máximo 10 puntos).
    - Coherencia de equipo y experiencia: preparación, capacidad y experiencia de los recursos humanos de la empresa en el desarrollo de servicios de auditoría de cuentas anuales. Se valorará muy positivamente la experiencia contrastada en el desarrollo de auditorías financieras para empresas del sector público (máximo 15 puntos).
    - Mejoras sobre la propuesta (máximo 5 puntos): Se valorará hasta un máximo de 5 puntos las propuestas de mejora realizadas sobre el alcance, objeto y ámbito de la presente licitación, en términos de:
        - Asistencia y apoyo en la redacción de la memoria anual: 3 puntos.

- Remisión gratuita de información relevante de carácter económico que afecten o puedan afectar a la Sociedad: 2 puntos.

6. DISPOSICIÓN FINAL

METODOLOGÍA Y FASES DEL CONTRATO

La prestación del servicio se realizará directamente por la empresa contratada quien deberá realizar un reporte periódico sobre las horas imputadas a cada línea de desarrollo al personal de BEAZ S.A.U.

Del mismo modo, las empresas que se presenten al concurso deberán demostrar en sus ofertas que disponen de la capacidad suficiente para la provisión del tipo de servicio solicitado, así como de los medios necesarios que garanticen la calidad en el servicio y la respuesta inmediata ante eventuales necesidades y/o imprevistos que pudieran producirse.

La empresa adjudicataria deberá presentar una oferta de bolsa de horas atendiendo al límite de presupuesto identificado en los pliegos administrativos del presente convenio.

DURACIÓN DEL CONTRATO

La empresa adjudicataria deberá prestar el servicio durante un periodo de 3 años desde la fecha de formalización del presente contrato con posibilidad de prórroga de hasta 2 años adicionales.

Bilbao, 17 de agosto de 2021

Eneritz Argatxa Izaola
Directora de Organización e Innovación

Olatz Goitia Urquiaga
Directora general

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATU HAUEK ESLEITZEKO:

"BEAZ, S.A.U-REN URTEKO KONTUEN AUDITORETZA-ZERBITZUA".

ESP. ZK.: 5/2021

AURKIBIDEA

1.- OBJETO DEL CONTRATO....3
2.- PRESUPUESTO....3
3.- ESPECIFICACIONES TÉCNICAS....3
4.- CONDICIONES PARTICULARES....7
5.- DISPOSICIÓN FINAL....10

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da Beaz S.A.U. erakundearen auditoretza-txostenak egitea (egoitza soziala: Sabino Arana 8, Bilbo), 2021,2022 eta 2023 ekitaldiei dagokienez.

2. AURREKONTUA

Kontratuaren gehieneko aurrekontua 10.000 €-koa izango da urte bakoitzerako, gehi % 21eko BEZa: guztira, 12.100 € urtean. Kontratuaren hiru urteetarako gehieneko zenbatekoa 30.000 €-koa da (36.300 € BEZ barne), 2 urteko luzapen gehigarri bat egiteko aukerarekin; hau da, 50.000 €-koa gehienez. (60.500 €, BEZa barne).

3. ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

3.1. Prestazioaren deskribapen orokorra

Txosten hauek egin beharko dira:

a. Urteko kontuen auditoretzari buruzkoa, auditore independente batek egina.

b. Urteko kontuen auditoretzaren inguruneko informazio-sistemak barne hartzen duen barne-kontrolari buruzko iradokizunak eta gomendioei buruzkoa.

c. Aurrekontuen eta kontratazioaren arloko legeria betetzeari buruzkoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearekin bat, eta kontratazioaren eta langileen ordainsarien arlokoa.

d. Auditatutako erakundearen saldoak Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta enpresa-sektore publikoko gainerako erakundeekin bateratzeari buruzkoa. Bateratze hori idatziz berretsi beharko da erakundeen artean; aldeak egonez gero, horiek justifikatzen dituzten arrazoiak azaldu beharko dira.

e. Bizkaiko Foru Aldundiak ezarritako beste eskakizun batzuk, hala badagokio.

Lana hainbat denbora-fasetan egingo da:

1. Atariko lana: ikuskatutako ariketa amaitu aurretik egingo da, eta modu eraginkorrenean gauzatu beharreko zereginak planifikatzeko balioko du, bai eta auditorearen iritziz arreta berezia behar duten arloak aldez aurretik identifikatzeko ere.

2. Azken lana: auditoretza egin eta hurrengo urteko urtarrilean edo otsailean egingo da, eta pertsona edo erakunde auditoreak baliabide nahikoak izan beharko ditu BEAZekin aipatutako aldiaren barruan datarik egokienak adosteko.

3. Txostenen zirriborroa: auditoretza egin eta hurrengo urteko martxoaren lehenengo astean egingo da, eta, hala badagokio, epe hori luzatu ahal izango da Beazen berariazko baimenarekin.

4. Txostenak entregatzeko azken eguna auditoretza egin eta hurrengo urteko martxoaren 31 izango da, salbu eta saldoak bateratzeko txostena, hori otsailaren 28an entregatu beharko baita.

3.2. Txostenen edukia

a. Urteko kontuen auditoretza-txostena, auditore independente batek egina.

Auditoriaren xede diren urteko kontuek eta kudeaketa-txostenak, hala badagokio, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailaren Foru Aginduan eskatutako egitura eta edukiei erantzungo diete. Agindu horrek auditatutako ekitaldi bakoitza ixteko eragiketak arautzen ditu, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoaren kontabilitate publikoari dagokionez.

Egiaztatuko da memoriak, aurreko paragrafoan adierazitako foru aginduan berariaz aurreikusitako oharpenez gain, Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 260. artikuluaren arabera jasotzen dituela, eta artikulu horretako zazpigarren adierazpenari dagokionez, erakundearen jarduerei dagokien negozio-zifraren zenbateko garbiaren banaketari dagokionez, honako hauek erregistratzen direla egiaztatuko da:

- Bizkaiko Foru Aldundiko foru-sail bakoitzari dagokion zenbatekoa.
- Foru-sektore publikoko erakunde bakoitzari dagokion zenbatekoa (erakunde autonomoak eta enpresa-sektore publikoko erakundeak).
- Gainerako fakturazioaren zenbatekoa.

Era berean, aurreko puntuarekin bat etorriz, egiaztatuko da memorian hornitzaile eta hartzekodunen zerrenda bat deskribatzen dela, horien fakturazio-bolumena 75.000 €-tik gorakoa izan bada ekitaldian, bai eta horietako bakoitzaren fakturazio-zenbatekoa ere.

Horrez gain, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32.2.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, ikuskatzaileak egiaztatuko du, sozietatea Bizkaiko Foru Aldundiarekiko baliabide propio pertsonifikatua dela aitortua duenean, memorian jasota geratzen dela sozietatearen jardueren % 80 baino gehiago Bizkaiko Foru Aldundiak eta berak modu berean kontrolatzen dituen foru-sektore publikoko beste erakunde batzuek agindutako zereginak gauzatzean gauzatzen direla.

b. Iradokizunen eta gomendioen txostena

Egindako barne-kontroleko lanaren ondorioz auditorearen iritziz egin behar diren gomendioen eta iradokizunen deskribapena.

c. Aurrekontuen legezkotasuna betetzeari buruzko txostena, kontratazioaren arloan eta kontratazioaren eta langileen ordainsarien arloan. Hurrengoei erantzungo die:

- Aurrekontu-legezkotasuna betetzeari. Zehazki, ustiapen- eta kapital-zuzkiduren aurrekontu-exekuzioari (Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bateginaren 83. artikulua).

- Kontratazioaren arloko legeria betetzeari, Sektore Publikoko Kontratuen Legearekin bat etorriz, eta kontuan hartuta, gainera, Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 3/2017 Foru Dekretuan ezarritakoa (klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika batzuei buruzkoak Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio publikoko prozeduran txertatzeko erregelamendu betearazlea onartzen duena), eta baita urtarrilaren 23ko 4/2017 Zirkularrean ere, "Kontratazio administratiborako gida praktikoa: klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak txertatzeko irizpideak eta jarraibideak", Zerbitzu, Udal Harreman eta Larrialdietako Zuzendaritza Nagusiak zabaldua.

- Kontratazioaren eta langileen ordainsarien arloko legeria betetzeari:

- Gerentziako eta zuzendaritza nagusiko karguak betetzen dituzten pertsonen ordainsariei ezarritako mugak (7/2015 Foru Araua, ordainsariak arautzen dituen 4/1989 Foru Araua aldatzen duena).
- Kalte-ordainak: erretiro aurreratuagatik, kaleratzeagatik...
- BFAk onartutako soldata-ordainsarien igoerak.
- Auditatutako ekitaldietarako onartutako aurrekontu-plantilla betetzea.
- Langileak hautatzeko aplikatutako prozedurak, publizitate-, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak bermatzen dituztenak:
    - ✓ Arrazoizko prozedura bat dago: aurkeztutako pertsonen zerrenda, batzuk hautatzeko eta besteak baztertzeko arrazoien justifikazioa, merezimendua eta gaitasuna erakusten duten hautatutako pertsonei buruzko azken txostenak...
    - ✓ Aldi baterako langileak aurrekontu-plantillaren arabera eta/edo aurretiko kontratazio-prozedura baten bidez sortutako lan-poltsa baten arabera kontratatzen dira.

d . Saldoak bateratzeko txostena

Auditatutako erakundearen eta foru-sektore publikoko gainerako erakundeen (Bizkaiko Foru Aldundia, erakunde autonomoak eta enpresa-sektore publikoko erakundeak) artean ekitaldian zehar gertatzen diren era guztietako eragiketen (erosketak, salmentak, zerbitzu-prestazioak, diru-laguntzak, kapital-handitzeak

eta -murrizketak, lagapenak, etab.) xehetasuna. Ogasun eta Finantza Saileko Aurrekontu Zerbitzuak solaskide gisa jardungo du dagokion informazioa emateko.

3.3. Elebitasuna urteko kontu-auditoretzako txostenetan

Urteko kontuen auditoretza-txostena euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztuko da, sinadurarekin eta hizkuntzari dagokionez inolako klausula murriztailerik gabe ("desadostasunik izanez gero, bertsio jakin bat gailentzen da" edo "gure txostena hizkuntza jakin batean formulatutako urteko kontuetara mugatzen da" motakoak), eta auditoria-erakundea izango da zeregin horren arduraduna.

Txostena zutabe bikoitzean aurkeztuko da, zehaztapen hauekin:

- Ezkerreko zutabea: euskaraz
- Eskuineko zutabea: gaztelaniaz
- Lerrokadura: ezkerra
- Letra mota: Lato light (goiburua: 14, paragrafoen izenburua: 12, azpititulua: 11 eta gorputza: 10)
- Orrialdearen konfigurazioa: marjinak: 2, 2, 2, 2
- Tartea (paragrafoa): aurrekoa 12, ondorengoa 0
- Zutabeak: 1. eta 3. zutabeen zabalera: 8,31. 2. zutabea, (erdian) 0,63
- Zutabeen arteko tartea 0,25
- Letra lodirik gabe, azpimarrarik ezta letra larririk gabe.
- Auditorearen sinadura: bi zutabeen erdian

4. BALDINTZA BEREZIAK

4.1. Lanen kontrola

Enpresa adjudikatzaileko proiektuaren arduraduna edo solaskidea izango da lanen arduraduna, alderdi guztietan. Pertsona hori arduratuko da proiektuan bere enpresaren giza baliabideak koordinatzeaz.

Beazek proiektuko arduradun bat izendatuko du antolaketa alderdietarako eta alderdi funtzional eta teknikoetarako. Berak hitz egingo du enpresa adjudikaziodunarekin, eta proposatzen diren jarraipen-bilera guztietara joan beharko du.

Lanak adjudikaziodunaren bulegoetan egingo dira.

4.2. Txostenak bidaltzea

Posta elektronikoz bidaliko dira eta elektronikoki sinatuta egon beharko dute.

Behin betiko txostenak bidaltzeko azken eguna auditatutako urte bakoitzaren hurrengo urteko martxoaren 31 izango da, saldoak bateratzekoa izan ezik, azken hori auditatutako urte bakoitzaren hurrengo urteko otsailaren 28a baino lehen bidali beharko baita. Txostenak Beazera eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko Auditoretza Zerbitzura bidaliko dira.

Behin betiko txostenak egin aurretik, auditoretza-erakundeak horien zirriborro bat bidali beharko dio, posta elektronikoz, Bizkaiko Foru Aldundiko Auditoretza Zerbitzuari.

4.3. Zehapenak

Adjudikaziodunari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik, epe osoa edo zerbitzua emateko epe partzialak atzeratu badira, edo lan-plana ez bada bete, eta, ondorioz, azken epea betetzea ezinezkoa dela uste bada, edo epe hori bete gabe geratu bada,

BEazek bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea, zigorrak ezartzea (egunean 10 euro, gauzatzeko dagoen kontratuaren prezioaren 1.000 euroko zati bakoitzeko), edo biak.

4.4. Luzapena

HIRU (3) urteko hasierako epea bi ekitaldi gehigarritan luzatu ahal izango da, alderdiek hala adosten badute, gehienez ere BOST (5) urtera arte.

4.5. Ordaintzeko modua

Lanak honako irizpide hauen arabera fakturatuko dira:

- % 30 aurretiazko lana amaitzean.

- % 70 behin betiko txostenak aurkeztean.

Ordainketa banku-transferentzia bidez egingo da, esleipendunak eskaintzan adierazitako kontuan, dagokion faktura jaso ondoren eta adostasuna eman eta hurrengo 30 egunen barruan.

4.6. Datu pertsonalak

Kontratatutako lana gauzatzearen ondorioz datu pertsonalak erabiltzen badira, auditoretza-enpresak Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu.

Halaber, esleipendunak Datu Pertsonalak Babesteko Beazen Araudia ezagutu eta bete beharko du.

4.7. Azpikontratazioa

Kontratatu beharreko zerbitzuaren konfidentzialtasun- eta espezializazio-maila eta bermeak direla eta, ez da azpikontrataziorik onartzen.

4.8. Berdintasun-klausula

Halaber, kontratua indarrean den artean erakunde adjudikaziodunak ezingo du hizkera sexistarik erabili sortzen dituen behin betiko agiri idatzietan zein digitaletan. Horrez gain, pertsonei buruz sortzen dituen estatistika guztietan datuak sexuka xehakatu behar ditu, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 2.3. artikuluaren babesean (Lege horretan ezarri dira arlo honetan errespetatu beharreko printzipioak).

5. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

➢ Automatikoki kuantifikatu daitekeen irizpidea/k.

Kontratuaren izaera dela eta, kontuan hartu behar dira bai kalitatearekin lotutako irizpideak, bai irizpide hertsiki ekonomikoak. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen da honako alderdi hauek baloratzea: kontabilitate-kontsultak ebazteko aparteko orduen poltsa eta BEAZ S.A.U.-ko langileek egindako eskaerei erantzuteko denbora. Horregatik guztiagatik, formulen bidez kuantifika daitezkeen irizpideen arabera eman beharreko puntuak 70 dira, 100 puntutik; 60 puntu balorazio ekonomikoari dagozkio, eta gainerako 10 puntuak formula bidezko balorazio kualitatiboari, honela banakatuta:

- Balorazio ekonomikoa: 60 puntu gehienez. Eskaintzak beheranzko hurrenkeran sailkatuko dira, preziorik baxuena duen eskaintzari puntuaziorik altuena emanda eta gainerako eskaintzei preziorik baxuena duenari proportzionalki puntu gutxiago emanda, formula honen arabera:

  Aurkeztutako eskaintzaren puntuazioa (i) = (Eskaintzaren preziorik baxuena (Po)/Eskaintzaren prezioa (Pi) x 60

- Erantzuteko itundutako denbora. Gehienez ere 5 puntu: BEAZ S.A.U.-k eskatuta egindako kontsultak edo planteatutako gaiak ebazteko emandako denboragatik gehienez bost puntu emango dira, eta honela puntuatuko da:

  - 15 minutu baino gutxiago: 5 puntu

- 15 eta 30 minutu artean: 2,50 puntu
- 15 eta 30 minutu artean: 1,25 puntu
- Ordu bat baino gehiago: 0 puntu

- Kargurik gabeko lan-orduen poltsa: 5 puntu, gehienez. Enpresa lizitatzaileek, Beazen esku 50 ordutik gorako eta gehienez 100 orduko doako kontsultei erantzuteko urteko ordu-poltsa bat jartzen badute, 5 puntu lortu ahal izango dituzte gehienez. Doako ordu horiek lanegunetan eta egunez izango dira. Doako ordu gehien aurkezten dituen eskaintzari 5 puntu emango zaizkio, eta gainerakoei, alderantzizko proportzioan, honako formula hau aplikatuz aterako den puntuazioa:

  Aurkeztutako eskaintzaren puntuazioa (i) = (Lizitatzaileak eskainitako orduak (Hi)/Aurkeztutako eskaintza guztien artean eskainitako gehieneko ordu kopurua (Ho)) x 5

➢ Automatikoki kuantifikatu EZIN den irizpidea:

- Programa teknikoa: gehienez 30 puntu emango dira, honela banakatuta:
  - Zerbitzuaren metodologia eta ikuspegia: egin beharreko lanak nola gauzatu diren deskribatzen duen memoria. Irizpide honen bidez, lortu nahi diren helburuak lortzeko identifikatutako zereginen deskribapen eta egokitasun handiagoa baloratuko da, bai eta proposatutako lan-planaren koherentzia handiagoa ere (gehienez 10 puntu).
  - Taldearen koherentzia eta esperientzia: enpresaren giza baliabideen prestakuntza, gaitasuna eta esperientzia urteko kontuen auditoretza-zerbitzuen garapenean. Oso positiboki baloratuko da sektore publikoko enpresentzako finantza-auditoretzen garapenean egiaztatutako esperientzia (15 puntu, gehienez).
  - Proposamenaren gaineko hobekuntzak (5 puntu, gehienez): Lizitazio honen irismenari, xedeari eta esparruari buruz egindako hobekuntza-proposamenengatik 5 puntu emango dira gehienez, honela:
    - Urteko memoria idazten laguntzea: 3 puntu.
    - Sozietateari eragiten dioten edo eragin diezaioketen informazio ekonomiko garrantzitsua doan igortzea: 2 puntu.

6. AZKEN XEDAPENA

KONTRATUAREN METODOLOGIA ETA FASEAK

Kontratatutako enpresak zuzenean emango du zerbitzua, eta aldian-aldian txosten bat egin beharko du BEAZ S.A.U.-ko langileei garapen-lerro bakoitzari egotzitako orduei buruz.

Era berean, lehiaketara aurkezten diren enpresek beren eskaintzetan frogatu beharko dute eskatutako zerbitzu mota hornitzeko behar besteko gaitasuna dutela, bai eta zerbitzuaren kalitatea bermatzeko behar diren baliabideak ere, eta gerta daitezkeen premia eta/edo ezustekoei berehala erantzungo zaiela.

Enpresa esleipendunak ordu-poltsaren eskaintza aurkeztu beharko du, hitzarmen honen administrazio-pleguetan identifikatutako aurrekontu-mugaren arabera.

KONTRATUAREN IRAUPENA

Enpresa esleipendunak 3 urtez eman beharko du zerbitzua, kontratu hau formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita, eta beste 2 urtez luzatzeko aukera izango du.

Bilbon, 2021eko abuztuaren 17an





Eneritz Argatxa Izaola
Antolaketa eta Berrikuntzako zuzendaria

Olatz Goitia Urquiaga
Zuzendari nagusia